



BALOREZKO PROPOSAMENA

Merkaturatuko dugun produktua beste produktuengandik bereizten da. Izan ere, eskainiko duguna ez baitu eskaintzen gaur egungo merkatuak. Hau da, lehenak izango gara zerbitzu hau eskaintzen. Merkaturatuko dugun produktua honetan datza:

Funtsean, Donostiako aparkalekuetan ea autoa aparkatzeko tokirik dagoen esaten dizun aplikazio bat da. Aplikazioak, aparkatu nahi duen pertsona, berarengandik gertuen dagoen aparkalekura bidaliko du eta aparkalekuan libre dauden toki kopurua adieraziko dio. Nahi izanez gero, tokia erreserbatzeko aukera izango du, baina zertxobait gehiago ordaindu beharko du. Honez gain, aplikazioak beste erabilera bat ere badu: kotxe elektrikoak kargatzeko gune espezifikokoak adierazten ditu, beti ere, erabiltzailearengandik gertuen daudenak.

Zergatik da komenigarria aplikazio hau erabiltzea?

Denok dakigun bezala, Donostian ohikoak dira auto pilaketak eta aparkatzeko aukera eza. Bai kaleetan eta baita aparkalekuetan ere. Horregatik, aparkaleku batean zure autoa aparkatzeko tokia erreserbatzea aukera paregabea da horrelako egoeretan.

Gaur egungo gizartean denak korrika eta presaka ibiltzen gara hara eta hona eta arazo bat izaten da Donostiara joan eta aparkatzeko tokirik ez bilatzea edota denbora asko igarotzea hura bilatzen. Beraz, aplikazioa edukiaz eta erabiliz gero, arazo hauek saihestu ditzakezu. Izan ere, aplikazioak esango dizu zure kokapenetik gertuen dagoen aparkalekua zein den eta honez gain mapa bat azalduko zaizu plaza libre guztiak solairuka adierazten dituenak. Erabiltzaileak egin beharko duen bakarra gustuko duen plaza aukeratzea izango da.

Gainera, kotxe elektrikoak edukiko bazenu, badakigu zaila dela horiek kargatzeko tokia aurkitzea eta are gutxiago joan nahi duzun lekuaren ondoan egotea kargatzeko aparkalekua. Horregatik, gure aplikazioaren bitartez errazagoa izango da, zure helmugarekiko gertuen dagoen aparkalekua bilatuko dizulako eta okupatuta badago, helmugarekiko gertuen dagoen hurrengo aparkalekua non dagoen adieraziko dizulako.

Nolakoa izango da aplikazioaren erabilera?

Aplikazioa intuitiboa da. Hau da, ez du inongo zailtasunik eta bisualki hura erabiltzea erraza da. Dena argi eta garbi dago adierazita eta ez da argibiderik behar hura erabiltzen jakiteko. Lehenengo momentutik erabiltzea lortuko duzu.

Martxel Parrondo, Beñat Rios, Asier Alkorta, Oihane Elizegi eta Naroa Etxebeste.